Hirigintza IV-ko azalpena (tailer bateratua + arruntaren hasiera)

Tailer bateratua Lasarte-Orian (Gipuzkoa) garatuko da. Ikasleek, hirukoteka, «A.18 Kotxerak» izeneko arearako Hiri Antolakuntzarako Plan Berezi bat proposatuko dute. Esandako hiri-area, ia 7 ha-ko azalerakoa, bizitegi-erabilerarako birkalifikatutako industrialde zahar bat da. Etxebizitza-erabilera nagusi edukiko duen jarduera-eremuaren berrantolakuntza bat proposatuko da, hortaz, indarrean dagoen legedia kontuan hartuz (eraikigarritasuna, hirigintza-estandarrak, zor-eremuak, irisgarritasuna, etab).



Eraikigarritasun egokia zehaztea ariketaren zati da. Hala ere, erabilera-nahasketa sustatzeko, etxebizitza-eraikigarritasuna ez da hirigintza-eraikigarritasun (ekipamendu publikoak alde batera utzita) guztiaren % 75 baino handiagoa izango. Praktika bi fasetan garatuko da:

1.- Lekuaren azterketa eta haren egungo egoeraren diagnostikoa

1.1.- Ingurune fisiko-naturalari buruzko informazioa: maldak (kotak, sekzioak), eguzkiztatzea, uholdegarritasuna, landaredia…

1.2.- Hirigintza-informazioa: gaur egun dauden partzelak, egungo lurzoruaren klasifikazioa eta kalifikazioa, ingurune gertuko hiri-bilbeak, sistema orokorrak eta haien zor-eremuak…

2.- Hiri Antolakuntzarako Plan Bereziaren aurrerapena: arearen mugaketa eta lurzoruaren kalifikazio xeherako proposamena (bide-komunikaziorako sistema, espazio libreen sarea, espazio partzelatuak…)

1. fasea Hirigintza IV-ko tailer arruntetako orduetan garatuko da, baita tailer bateratuko 1. egunean ere (2013ko otsailaren 6an). 2. fasea Hirigintza IV-ko tailer arruntetako orduetan garatuko da, baita tailer bateratuko 2. egunean ere (2013ko otsailaren 27an).

Bi emateak Hirigintza IV-ko hurrengo eskola teorikoen hasieran izango dira (1. zatia otsailaren 11n, eta, 2. zatia martxoaren 4an), bai digitalki, CDan, bai paperean, din A-1 planoa(k), din A-4ra tolestuta.

Donostian, 2013ko urtarrilaren 25ean

Hirigintza IV-ko irakasleak